

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko 2026ko zerga ordaintzeko epearen hasiera

Jakinarazten da hasi dela jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2026ko ordainketak egiteko aldia.

I. ORDAINTZEKO EPEA

A) Borondatezko epea: 2026ko urriaren 1etik abenduaren 1era.

Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak 2026ko urriaren 15ean kobratzeaz.

B) Epe exekutiboa: borondatezko epean ordaintzeko epea igaro eta ordainketa egin ez bada, zorrak premiamendu prozedura bidez eskatuko dira, honako hauetan jasotako moduan: Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua eta Dirubilletari buruzko Araudi Orokorra onesten duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 70. artikulua eta hurrengoak. Ondorioz, dagozkion errekarguak eta berandutze interesak sortuko dira.

II. ORDAINTZEKOTOKIA ETA MODUA

A) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta daukatenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu bera badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez dutenek borondatezko al-dian egin ahal izango dute, Kutxabank banketxean eta banku transferentzia bidez. Horretarako, ordainagiria jaso beharko dute aldez aurretik udalean, 08:30etik 14:30era.

III. GOMENDIOAK

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Berantevillako Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2026ko uztailaren 21a

Alkatea

ISABEL ARBAIZAGOITIA PERAL